

Metalgintzako mobilizazioek eragina izan dute Durangaldean

Ekonomia • Metalgintzan ordezkartza duten sindikatuek (ELA, CCOO, LAB, UGT, ESK, CGT eta CNT) patronalaren “jarrera ardurabakoa” salatu dute egunotan. Hitzarmena berritzeko eskariak direla eta, sindikatuek “negoiazioa blokeatzen” ibiltzea egotzi diote Metaleko Lantegien Bizkaiko Federakuntzari (FVEM). Durangaldean mobilizazioak egin dituzte. • **11**



Apatako eta Berrizko jaiak egitarau zabalagaz datoz asteburuan gozatzeko


Martitzenean, San Pedro bezperan, txupinazoak jaurtita eman zieten hasiera Apatamonasterioko eta Berrizko jaiei



Jaiak • Eskualdeko herri bietan egitarau zabala antolatu dute astebururako. Apatamonasterion Jaimones, State Alerta eta Keikeren kontzertuak egongo dira, besteak beste. Berrizen, Luhartz, Etxekalte eta Nize arituko dira • **10-11**

Amatzako Trikitixa Jaialdia: auzoetako jaien xarma

Jaialdia • Iurretako Amatz auzoan egiten duten Trikitixa Jaialdiaren seigarren edizioa antolatu dute aurten. Auzo txikiek duten xarma handiaren adierazle da ekitaldi hau. Zapatuan sei talde igoko dira oholtza gainera. Tartean, Mikel Eizaran eta Gorka Valdés Durangaldeko bikotea. • **2-3**



"Amatzakoa oso jai polita izaten da. Auzo txiki bat denez, denak inplikatzeko dira jaietan"

Mikel Elizaran eta Gorka Valdés trikitilariak lurretako Gaztetxean batzen dira entseatzeko. Zapatuan Amatzako trikitixa jaialdian parte hartuko dutenez, errepertoria prestatzen dabilta

KULTURA • JONE GUENETXEA

Amatzako Trikitixa jaialdian Durangaldeko bikote bakarra igoko da oholtzara: Mikel Elizaran Mendarte (lurreta, 1998) eta Gorka Valdés Etxebarria (Durango, 2000).

Noiz hasi zineten trikitixa jotzen?

Mikel Elizaran: 15 urte gaz hasi nintzen panderoa jotzen ikasten. Zornotzako Soinu Txiki eskolan ibili nintzen ikasten. Gero, kalejiretan nire kontura irteten hasi nintzen nahikoa hobetu nuen.

Gorka Valdés: 9 urte gaz hasi nintzen soinuagaz. Egia esan, ez dakit zehatz-mehatz zergaitik aukeratu nuen musika tresna hori. Gelakideak biolina eta zeharkako flauta jotzen ikusten nituen eta ez zidaten batere inbidiarik ema-

Hiru bertsio egingo ditugu eta horietatik biren letrak geuk moldatu ditugu. Eta fandago bat eta arin-arin bat ere bai

ten. Adin horregaz zeozer aukeratu behar nuela eta, Durangoko trikitixa eskolan ikasten hasi nintzen, Lierni Aranburugaz. Gustura joaten nintzen, baina ez nuen askorik jotzen. Mikelek esandako legez, kalera salto egiterakoan hasi nintzen benetan gozatzen eta abestiak ikasten, 12-13 urte gaz.

Bikote legez jo izan duzue ala jaialdirako elkartu zarete?

M. E.: Aspaldian bat egin dugu kafean, eta hantxe sortu zen jaialdian parte hartzeko aukera. Gorkak bazuen jaialdian jotzeko asmoa eta nik ere jotzeko proposatu zidan.

G.V.: Hegoi Petite antolatzaileak jaialdian parte hartzeko komentatu zidan. Kontua da beti arazoren bat dudala eta ezin dudala jo (barrez). Ikasturtea amaitutakoan, mendira joaten naiz eta jausi egiten naiz beti. Besoan ez bada, hankan izaten dut igeltsua ipinita. Gero, pandemia etorri zen, Omicron delakoa ere bai... Oraingo behin betikoa dela ematen du eta ea ez dudan arazorik jotzeko. Zapatura arte ondo zaindu behar dut neure burua.

Zelan elkartu zarete Amatzan jotzeko?

M.E.: Orain dela lau urte-edo elkartu ginen Amatzan. Baina gutxitan jo dugu elkarregaz. Batez ere, aurtan.

Zer prestatu duzue jaialdirako?

G.V.: Hiru bertsio egingo ditugu eta horietatik biren letrak geuk moldatu ditugu.

M.E.: Fandago bat eta arin-arin bat ere bai.

Durangaldeko ordezkari bakarrak izango zarete.

G.V.: Hori presio handia da.

M. E.: Hau joan egin zaigu eskue-tatik.

Zer diotsue ingurukoek?

M.E.: Nire lagunak tropelean etorriko dira ikustera.



Mikel Elizaran eta Gorka Valdés.

G.V.: Kuadrillako bazkaria egin genuen zapatuan. Kartela bidali nuen Whatsapp taldera eta etorri daitezkeela esan nien. Inork ere ez zuen ezer idatzi (barrez). Familia etorriko da. Edozelan ere, Amatzan oso giro ona egoten da.

Amatzako jaialdiak badu bere xarma.

M.E.: Jaialdira joan nintzen lehenengo urtean, buelta bat ematera irteten nuen, mugikorra poltsiko batean eta giltzak bestean. Lagun bigaz gurutzatu nintzen eta trikitilaria izanda ea Amatzara zelan ez

nindoan galdetu zidaten. Eurekin joateko esan zidaten eta biharamunera arte egon ginen elkarregaz, goizeko seiak arte.

G.V.: Amatzakoa oso jai polita izaten da. Auzo txiki bat denez, denak inplikatzeko dira jaietan.



Mirari, Aintzane eta Zaloa.



Jose Javier Abasolo 'Tiliño', Kepa Arrizabalaga eta Roberto Etxebarria.

6. Amatzako Trikitixa Jaialdiak estilo askotako musikariak batuko ditu

Sei trikitilari talde igoko dira Amatzako oholtza gainera, 19:00etatik aurrera



Amatzako jaietan hainbat ekitaldi antolatuko dute.

JAIALDIA • J.G.

Iurretako Amatz auzoa trikitilarien topaleku izango da asteburuan, trikitixa jaialdiaren seigarren edizioan. Hegoi Petite antolatzaileak azaldu duenez, aurten oso estilo ezberdineko musikariak igoko dira Amatzako oholtzara: “Oso estilo ezberdineko trikitilariak ekartzea lortu dugu aurten. Oso tradizionalak direnak, beste instrumentu batzuk, alboka... Modernoagoak diren trikitilariak ere etorriko dira”. Erakustaldiaren ondoren, elkarregaz afalduko dute. Hortxe hasten da jaialdiaren bigarren zatia, mahaiaren bueltan sortzen den giro horregaz.

Seigarren aldia

Petitek azaldu duenez, lehenengo aldian jendeari “mesedeak eskatuta” antolatu zuten, inguruko trikitilariak gonbidatuta. Harrera ona izan zuela ikusita, aurrera jarraitzea erabaki zuten, elkarte bat sortuta, udalari diru laguntzak eskatuta eta abar. Horrela, seigarren ediziora heldu dira. “Auzo txiki batentzat lan handia da. Kanpotik jende asko dator eta ez gaude ohituta hau guzti hau antolatzeraz. Baina hain harrera ona duenez, merezi du”, adierazi du Petitek.

Amatzako jaiak

Uztailaren 2a, zapatua

18:00 Donien Atxa eta dantzariak

19:00 Trikitixa jaialdia

- Leonen orroak
- Agurtzane eta Ion Elustondo
- Imanol Arrola, Julen Begoña, Susana Gomez eta Jon Ander Azkue
- Irati Gutierrez eta Amets Ormaetxea
- Gorka Valdés eta Mikel Elizaran
- Iñaki Plaza eta Alex Gómez

Jaialdiaren ondoren, afaria

Uztailaren 3a, domeka

20:30 Tortilla txapelketa eta afaria. Ondoren, Txapito Guzman eta Ibarako Langostinuek

Uztailaren 4a, astelehena

12:00 Meza, eta, ondoren, auzoko dantzariak

15:00 Bazkari herrikoia



Zentzudun bizi,
blogean ikasi

Ekonomia eraldatzailea • Ekonomia feminista • Elikadura burujabetza • Etxea • Euskara
Gizarte eraldaketa • Gorputzaren burujabetza • Iraunkortasuna • Konmari metodoa
Kontsumo alternatibak • Zero zabor... **EUSKARAZ!**

Trenbidearen trazadura berreskuratzearen alde egin dute aurrekontu parte hartzaileetan

Botorik gehien jaso duen proposamena izan da. Horrez gainera, umeentzako parke berriak egingo dituzte Ibaizabalen eta San Fauston. Otamotzenako parkea argiztatu egingo dute eta Tabiran umeentzako ur parkea atonduko dute etorkizunean

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Durangoko Udalak amaitutzat eman du aurrekontu parte hartzaileen bozketa fasea, eta babesik zabalena izan duten proiektuak zeintzuk diren jakinarazi du. Trenbide zaharraren trazadura herritarrentzat berreskuratzea izan da aukerarik bozkatuena. Horrez gainera, beste proiektu batzuek ere ikusiko dute argia 2023ko aurrekontuetan: San Fauston eta Landakoko Ibaizabal parkean umeentzako jolasgunea ipintzea onetsi dute herritarrek. Eta Otamotzena parkeagaz ere, antzeko. Parkea argiztatzea eta txintxaunak ipintzea bozkatu dute. Madalenako ermita erabilera sozialetarako egokitzea, Tabiran umeentzako ur parkea ipintzea eta erdiguneko zebra-bideak argiztatzea ere izan dira aurrera egin duten beste proiektu batzuk.

800.000 euro guztira

Herri osoari begirako proiektu orokor batez gainera, aurtengo aurrekontu parte hartzaileek berri-

tasun bat ekarri dute, inbertsioak herriko sei gunetan egingo dituzte eta. 200.000 euro proiektu orokorrerako ipiniko dituzte, eta beste 600.000 gainerako gunetarako. Udal agintariek diotenez, Duran-

goko aurrekontu parte hartzaileak "egonkortu" egin dira lau edizioen ondoren. Aurrerantzean ere bide beretik jarraitzea aurreikusi dute, herritarrei "ahotsa" eta "iritzia" emanda. Aurtengo prozesuan 69

proiektu egon dira bozkatzeko. 1.469 durangarrek parte hartu dute. Udalak datorren urteko aurrekontu orokorretan txertatuko ditu botorik gehien jaso duten proiektuak.



Garai bateko trenbidearen trazadura Trenbide eta Geltoki kaleen bitartean.

Tren geltoki ondoko hesiak kenduko dituzte



DURANGO • EKAITZ HERRERA

Euskal Trenbide Sareak eta Durangoko Udalak tren geltokiaren ondoko hesiak kentzea erabaki dute. Lanak uztailaren erdialdean hasita aurreikusi dute. Gune hori zabalduta, eta maiatzean libre utzitakoekin batera, 2.000 metro karratu inguru egongo dira erabilgarri. Udalaren berbetan, "Udalak eta Eusko Jaurlaritzak PERIaren inguruan lortu" duten akordiorako oinarriak "lagundu" egin du hesiak kentzeko. Horri eskerrak, durangarrek urteetan hesituta eta aprobetxatu ezinda edukitako eremua berreskuratuko dutela diote udal agintariek.

Alde Zaharreko bizilagunek "bide orri adostua" eskatu dute auzoko arazoak konpontzeko

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Durangoko Alde Zaharra elkarreko bizilagunek "datak eta betebeharrak" jasoko dituen "bide orri adostu bat" egitea eskatu diote udalbatzari, "egungo eta aspaldiko arazoak" konpontzeko. Mozioa aurkeztu zuten eguaztenez Durangoko Udalean egindako osoko bilkuran.

Jose Mari Arrillaga eta Asun Canales bizilagunek politikarien aurrean defendatu dituzte eskariak. Diotenez, "arazo ugari dago ainguratuta, eta hori pasibotasun

instituzionalaren ondorio da". Bizilagunek diote Alde Zaharreko zorua "lotsagarri" dagoela. "Eda-detuak eta mugikortasun arazoak dituztenak beldur dira euria egiten duenean", gaineratu dute. Eta zarata "hipoteka gehigarria" dela eurentzat: "Umeek, familiek, ikasleek zein adinekoek geroago eta zailtasun gehiago dute deskantsatzeko. Indarrean dauden ordenantzak betetzeko eskatzen diogu udalari". Emisio Baxuko Guneak ez ditu elkarteko kideak asebate, aparkalekuei eragin dielako. Eta

Internet konexioari buruz adierazi dute zuntz optikoa ipintzeko aukera aztertu behar dela, "Donostiako, Arrasateko eta Gasteizko Alde Zaharretan egin den moduan".

Gobernu taldeak jakinarazi du neurri sorta bat prestatzen dabilela arazoak konpontzeko. TAO zerbitzua indarrean sartzen denean, Alde Zaharreko bizilagunek 117 aparkaleku izango dituztela aurreratu du. Kaleetako zaratari dago-kionez, gobernu taldeak "azterketa akustiko bat" egingo du 2023ko lehenengo hiruhilekoan".



Durangoko Goienkalea 2020ko azaro hasieran.

anboto

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2021eko uztailaren 1a
20. urtea - 899. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua



Durangoko Txosna Batzordeko kideak, 2018ko aurkezpenean.

Txosnek 2019an baino 5.400 euro gehiago jasoko dute udaletik

Guztira, 20.000 euroko diru ekarpena jasoko dute Durangoko Udalaren partetik, jaiak kudeatzeko

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Durangoko Udalak handitu egin du txosnei eskaintzen zaien diru laguntza. Txosna Batzordeak 20.000 euroko ekarpena jasoko du, 2019an baino 5.400 euro gehiago. Erabakia EAJk, EH Bilduk eta Herriaren Eskubideak babestu dute. Mireia Elkoroiribe, Juanan Bueno eta Julián Ríos bat etorri dira "jaiak indartzeko

sasoa" dela iritzita. Alderdi sozialistak kontra egin du. Jesica Ruizek esan du alderdi sozialista erabakiaren alde egon dela bozketaz bezperara arte, baina kontra egin dute txosna batzordeari emaniko kopurua "ludotekatik eta gaztelekutik kenduko dela-koan". Gobernu taldeak esan du azken hauei ez zaiela dirurik kenduko.

Durangoren eta Montevideoren senidetze prozesua, martxan

Alde biek lotura historikoak eta elkar ezagutzak estutu gura dituzte. Durangoko udalbatzak senidetzea hasi du

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Durangoko Udalak eta Uruguaiako Montevideo hiriburuak senidetze prozesua hasi dute herri biak batzen dituzten lotura historiko eta kulturaletan oinarrituta. Durangoko udalbatzak asteon eman dio argi berdea kultura lankidetzari

horri, baina kontua atzeragotik dator, 2019tik. Erakunde bien arteko hartu-emanak orduantxe hasi ziren eta, Montevideoko Euskal Etxearen bitartekaritzari eskerrak. Durangar bat izan zen Montevideo hiriaren sortzailea: Bruno Mauricio Zabala.



Montevideo hiriaren ikuspegia airetik.



Urtemuga ospatzeko, La Revelía jatetxeko txefek sukaldaritza tailerra egin zuten erabiltzaileekin.

Nafarroa Zentroak 20 urte bete ditu adinekoei eta beharrezana dutenei zerbitzua ematen

Jubilatuak, eguneko zentroa darabiltenek eta AIDAE elkarteak erreferentziazko leku modura dute zentroa. Urteurrena sukaldaritza eta antzerki saio banagaz ospatu dute

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

"Niretzat hau askapen moduko bat da. Alarguna naiz, bakarrik bizi naiz eta nire seme-alabak kuku bat egitera etortzen dira hona. Oso pozik nago hemen". Lucía Arza zornotzarraren berbak dira horiek. Urtebete baino gehiago darama Nafarroa Zentroko eguneko zentrorra joaten. Pozarren dago, bertan oso ondo zainduta sentitzetik aparte hartu-emanak egiten dituelako gainerako erabiltzaileekin. "Jendeak dio hau egoitza baten antzekoa dela, leku itxia, zurruna. Baina ez da horrela. Zentro honetan egoteak merezi

du. Mundu guztia pozarren dago hemen", gaineratu du.

Nafarroa Zentroak 20 urteko ibilbidea bete du asteon, eta Alaitasune Duartek, zentroko arduradunak, balantze txiki hau partekatu du: aurtengo urtarritik maiatzera, zentroak 293 herritarri eman die zerbitzua. 30 bat profesional daude bertan lanean. Duartek dioenez, familia giroko "mikromundua" dute bertan. "Zerbitzu asko batzen da hemen. Eguneko zentroa dugu nagusientzat, jubilatuen etxea, AIDAE elkarteak. Gaitasunak askotarikoak izan daitezkeela erakusten dugu", azal-

du du Duartek. Ainhua Salterain Gizarte Ekintza zinegotziak, bestalde, "Nafarroa Zentroa goi mailakoa eta erreferentzia dela, eta beti zabalik dagoela" gaineratu du. Alde horretatik, azpimarratu egin du erabiltzaileen familiek zentroagaz duten konfiantza.

Urteurrena ospatzeko, ekintza bi izan dituzte. Eguneko zentroko kideek sukaldaritza tailerra (showcooking saioa) egin dute, Zornotzako La Revelía jatetxeko Fernando González sukaldariagaz. Bestalde, Markeliñek antzerki saioa egin du zentroko erabiltzaileentzat.

Zornotzako marmitako txapelketan izena emateko epea, zabalik

Karmen eta Santanatu jaietako marmitako txapelketa uztailaren 23an egingo da, herriko hainbat puntutan. Izena emateko, Zelaieta zentrorra jo behar da, uztailaren 12a baino lehenago

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Zornotzako Udalak zabaldu du jaietako marmitako txapelketan izena emateko epea. Mahai eta aulki kopurua ahalik eta zehatzen koordinatzeko, kuadrilla bakoitzeko kide batek Ametx txartela aurkeztu beharko du izena ematerakoan. Pertsona hori egingo da udalak utzitako materialaren arduradun. Antolakuntzak hegaluzea, mahai-tresnak eta ogia baino ez ditu banatuko. Gainerako guztia parte hartzaileek eraman beharko dute. Kuadrillek kazolak entregatzeko ordutegia eta kozinatzeko lekua errespetatu beharko dituzte. Sari banaketa 14:30etik 15:00etara bitartean izango da, Zubiondo plazan.



Zornotzako kuadrilla bat 2019ko marmitako txapelketan.

"Ez ditugu gainerako abadiñarrek dituzten eskubide berberak?"



Muntsaratz eta Irazola auzoetako bizilagunak.

ABADIÑO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Muntsaratz-Irazola auzoko bizilagun batzuek, beste hainbat herritarregaz batera, iazko irailean egindako protesta birengaitik 700na euroko isunak jaso dituztela salatu dute; Abadiñoako Udalaren "ganorazko kudeaketa batek" isunak saihestu zitzaizkela diote.

Auzotarren ustetan, euren bizimodua asko kaltetu da hein batean, AHTaren lanen eraginez; neurri batean, "udal gobernuaren

kudeaketa txarragaitik", baina arazoa lehenagotik dator. "Izango dira 25 urte baino gehiago gurutzebidetan argia behar zela esan geniola udal gobernuari, asmatzen ibili behar izaten dugula Elorriotik gatozenez non sartu behar dugun, ezkerretara ez delako ezer ere ikusten; izango dira 25 urte baino gehiago zebra-bide bat egitea eskatu genuela, oinez gatozenez bidea segurtasunez gurutzatzeko; eta auzoan argiak behar genituela,

oinenez segurtasunez ibili ahal izateko. Gure eskaerak ez dira zentzuzkoak? Ez ditugu guk Abadiñoako gainerako herritarrek dituzten eskubide berberak? Itxuraz ez", azaldu du bizilagun talde batek ohar baten bitartez. Iraileko protestek, eta hauen osteko isunek, Irazola-rako tren-zubia eraisteagaz dute lotura, bizilagunek oharrean esandakoaren arabera. Bizilagunen esanetan, gainera, UTEak ez zuen segurtasun informean "beren ingurua" sartu. "N-636 errepiderako baino ez da, gure bidetik milaka kamioi pasatuko denean, eta hala ere, udalak onartu egin zuen. Behin baino gehiagotan arazo itzelak izan ditugu uholdeekin. Horregaitik, UTEari segurtasun informea exijitu ziezaiola eskatu genion Abadiñoako Udalari", esan dute. Horrez gainera, sarrera eta irteeretarako bidea itxita geratzea ere salatu dute. Erreka kanala ez estaltzeko eskainitako irtenbideei UTEak ezetza eman izana salatu dute, baita ere.

Auzotarrak "irtenbide bat lortzeko asmoagaz" joan ziren zubiaren inguruetara, baina enpresako kideek Ertzaintzari deitu zioten. Beste hainbat herritar ere batu zen protesta horretara. Identifikatu eta gero, ertzainek kanporatu egin zituzten han baturikoak. Alkatea ez agertzea ere salatzen dute bizilagunek, baita AHTaren lanei "lehentasuna" ematea, auzotarrei eman beharrean. "Herritarrei jakinarazi gura diegu udalaren ganorazko kudeaketa nahikoa izango zela isunak saihesteko", amaitu dute.

Kultur programa zabalagaz ospatuko dute Berrio-Otxoa eguna Elorrión

Uztailaren 2, 3 eta 4rako antolatu dute egitaraua Elorrión



ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Urte biko pandemiaren ondoren, Elorriok Berrio-Otxoa eguneko jaia berreskuratuko du. Aurten, gainera, kultur programa zabalagaz ospatuko dute, hiru eguneko kultur programagaz.

Uztailaren 2an, 22:30ean, Yllana taldeak *Trash!* ikuskizuna egingo du elizako atarian. Uztailaren 3an, goizean zehar, azoka ekologikoa egongo da Elorrixa Ekologi Elkartearen eskutik, aparkalekuan. Bertan, tokiko produktuak dastatzeko

aukera egongo da. Arratsaldean, 18:30ean, pilota partiduak egongo dira pilotalekuan, eta 20:00etan Bucaraá Circus taldearen ikuskizuna egongo da.

Berrio-Otxoa egunari, uztailak 4, 10:00etan emango diote hasiera, txistularien kalejiragaz. 12:00etan meza nagusia egongo da eta 13:00etan luntxa. Berrio-Otxoa egunari orfeoaren saioagaz emango diote amaiera. 20:00etan izango da, kaperan.

Igerilekuen kudeaketan udalak eta hainbat enpresak duten erantzukizuna argitzeko ikerketa egingo dute

EH Bilduk eskatuta ikerketa batzordea sortuko da. Galdera batzuen erantzuna urrirako izatea itxaroten du oposizioak

ABADIÑO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Martitzenean egindako osoko bilkuran, Abadiñoako EH Bilduk igerilekuen kudeaketaren inguruko mozio bat aurkeztu zuen. Mozio horren bitartez, igerilekuen kudeaketan hainbat enpresak eta udalak berak duten erantzukizuna argitzeko ikerketa bat egitea eskatzen zuten. "Abadiñoako igerilekuen kudeaketa desgokiak, 2020ko otsailetik gaur egunera arte, estalkirik barik egotea ekarri du, eta, gainera, galdara gela guztiz eraberritu behar izan da, besteak beste. Hori gutxi balitz,

egoera horretara heldu arte, eta gero ere, izandako gertakari eta harturiko erabaki asko ez dira zuzenak izan; askok aztertu edo argitu barik jarraitzen dute", kritikatu dute EH Bilduko kideek.

Hori horrela, eta mozio hori onartu dela ikusita —EH Bilduk mozioaren alde bozkatu zuen eta EAJko eta AIko zinegotziak abstentitu egin ziren—, Abadiñoako Udalak ikerketa martxan ipintzeko konpromisoa hartu du. Abadiñoako EH Bilduk hainbat galdera planteatzen du ikerketa hori egiteko.

Hauk dira horietariko batzuk: Emtesport enpresak era egokian bete al ditu mantenuari zegozkion lanak? EH Bilduren berbetan, udalak mantentze-lanen auditoritza tekniko bat aurreikusten zuen urtero. Hala ere, hiru urtez jarraian, ez zen auditoritzarik egin. Zer-nolako eta norentzako ondorioak ditu praxi oker horrek? Bestalde, EIBEX enpresak udalaren eskariz 2018, 2019 eta 2020. urteetako auditoriak egin zituela jakinarazi du oposizioak, eta bertan EMTESPORT enpresak pleguetan adierazitakoa betetzen zuela azaltzen dela esan du. Hala ere, EH Bilduk dio Teknialiak egindako txostenak hori ez zela horrela izan azaltzen duela. Beraz, oposizioak salatu du edo EIBEXek txarto egin zuela auditoritza edo EMTESPORT enpresak datu faltsuak eman zituela.

EH Bilduk esan du galdera horiei eta beste hainbati erantzuna emateko egingo dela ikerketa. "Bai lehengo gobernuak bai oraingoak



Mikel Urrutia eta Jon Montoto Abadiñoako EH Bilduko zinegotziak.

erabaki okerrak hartu dituzte. Euren kudeaketaren ondorioak herritarrok pairatzen ditugu eta dagoeneko instituzio publikotik 3 milioi euro inguru bideratu dira erabaki oker horietara. Beraz,

ordua da alde bakoitzaren erantzukizunak argitzeko. Ildo horretatik, aurrerapausotzat hartzen dugu udal gobernuaren abstentzioa eta ikerketa hori baimentzea", amaitu dute oposizioek.



Okm: *batzen gaituen distantzia*

**30€
urtean!**

Egin zaitez anbotokide!

**> anboto
kide**

Antzinako eta gaur egungo bizikletak ikusgai izango dira Mallabian lehenengoz antolatuko duten Bizikleta Azokan

Bizikleta berriak eta elektrikoak ere erakutsiko dituzte zapatu goizean zehar Mallabiko plazan egingo duten azokan

MALLABIA • J. DERTEANO
Bizikleta zaleek azoka berri bat egaz gozatu ahalko dute zapatu honetan, Mallabian. Bizikleta historikoak, gaur egungoak, materialen salmenta, bizikleta konpontzeko gunea... Plazan hainbat postu ipiniko dute, 09:00etatik 14:00etara.

Egoitza nagusia Mallabian duen Decomesa enpresa da erakusketaren antolatzailea. Pandemi-
an 25 urte bete zituen, baina

Afizionatuetan ziklismo talde bat babesten duen Decomesa enpresa da antolatzailea

orduan ezin izan zuten ospatu eta ekimena atzeratu egin behar izan zuten. Decomesa Extremadurako afizionatu mailako txirrindularitza talde bateko babeslea da

eta asteburuan Euskal Herrian egongo dira denboraldiaurreko prestakuntza modura. Hori aprobetxatuta antolatu dute azoka Mallabian, eta txirrindularitza taldekoak ere hantxe egongo dira.

Aspaldiko bizikletak
Azokako osagai bat bizikleten erakusketa izango da. Gaur egun-
goak ez ezik klasikoak ere egongo dira ikusgai, 80ko eta 90eko ha-
markadakoak. Esaterako, Califor-
nia bizikletak erakutsiko dituzte.
"Bere sasoian, bizikletaren erdian
malgukiak izateagaitik egin ziren
ezagun", azaldu du azokako anto-
latzaileetarikoa den Raul Pelayok.
Motoreta estiloko bizikletak ere
egongo dira. "Bizikleta hauek
L itxurako eserlekua zutelako
igaro dira irudimen kolektibora",
gogoratu du. Horregaz batera, bi-
zikletako markoak zuragaz egiten
dituen ekoizle bilbotar bat ere
joango da bere diseinu bereziak
erakustera.




Askotariko bizikletekin Ermuan antolaturiko erakusketako irudia.

Bizikleta elektrikoak
Beste postu batean bizikleta be-
rriak eta bizikleta elektrikoak
erakutsiko dituzte. Horrez gai-
nera, beste postu batean bizikle-

ten ordezeko piezak (eserlekuak,
balaztak, kateak...) eskuratzeko
aukera egongo da eta mekanikari
batek konponketa txikiak dohai-
nik (zulaketak, balaztak...) egin-

go ditu. "Askotariko azoka anto-
latzen ahalegindu gara. Denerik
egongo da. Azken batean, bizikle-
taren inguruko jai bat izatea gura
dugu", azaldu du Pelayok.



Gerea auzoko ur-jauzia.

Gerea auzoan ur-jauzien ibilbidea berreskuratu dute

Herriko ondare kulturalaren balioa nabarmentzeko aurrekontuetan jasoriko ibilbideetarikoa bat da

MALLABIA • J.D.
Mallabiko Udalak Gerea auzoko ur-jauzien ibilbidea berreskuratu du. 2022ko aurrekontuan jasoriko ibilbide osasungarrietarikoa bat da. Izan ere, aurtengo aurrekontuen inbertsiorik nagusienetarikoa herriko ondare kulturalaren balioa nabarmentzeko erabiliko dute. Horrela, udalak hainbat jarduera egin du ur-jauzia eta bertara joateko ibilbidea be-

rreskuratzeko, hala nola bidea garbitzea eta markatzea, on-
doren Wikilocen ipintzeko eta ibilbidea erregistratuta izateko. Guztira, 6,47 kilometro daude Trabakutik ur-jauzietara, 684 metroko gehieneko altitudea-
gaz.
Aurrera begira, plazatik Zen-
gotitarainoko ibilbidea ere be-
rreskuratzeko asmoa dute, erre-
karen ondotik pasatzen dena.

Otxandioko Mainondoko eskolan gune berri estalia egingo dute

Saskibaloia kantxa dagoen eremuan estalpea ipiniko dute

OTXANDIO • J.D.
Neguan eta euria egiten due-
nean, Mainondoko Eskolan zail-
tasunak dituzte aire libreko
guneak erabiltzeko, eta hori de-
la eta, Otxandioko Udalak ikas-
tetxearen eremu barruan gune
estali berri bat egiteko erabakia
hartu du. Proiektuaren aurre-
kontu osoa 72.584 eurokoa izan-
go dela iragarri dute udaletik,
eta %90eko diru laguntza lortu
dute egitasmoa finantzatzeko.

Lehenengo eta behin, estalpe
berria non egin erabakitze-
ko, Otxandioko Herri Ikastetxe-
ko eremuaren barruan dauden
gune posibleak aztertu eta es-
kolagaz kontrastatu zituzten.
Prozesu horren ondoren, gaur
egun saskibaloia kantxa dagoen
gunea estaltzea erabaki dute.
"Horixe da lekurik aproposena
ikastetxeak dituen beharriza-
nak asetzeko", adierazi dute
udal arduradunek.

Domeka honetan jaiak ospatuko dituzte Mañariko San Martin ermitan

MAÑARIA • J.D.
Mañariko Aldegoiena auzoan
dagoen San Martin ermitaren
inguruan jaiak ospatuko dituz-
te domekan honetan. 11:00etan
meza izango dute. Ondoren,
Mañariko Andra Mari dantza
taldekoek saioa egingo dute eta,
azkenik, luntxa egongo da ber-
taratzen direnentzat.

Goizeko mezaren ostean dantza saioa eta luntxa egongo dira San Martin ermita inguruan

Zesta eskolako umeak ere Izurtzan aritu dira

IZURTZA • J.D.
Ezkurdi Jai-Alaiko zesta esko-
la-
koek hilabete bi pasatxo dara-
matzate Izurtzan entrenatzen,
Durangoko pilotalekuan obretan
dabiltzalako. Orain arteko balo-
razioa "oso ona" da, Pedro Mari
Garcia zesta eskolako kidearen

esanetan. Ekainean zehar, 8tik 12
urtera arteko eskolako umeak ere
bertan aritu dira. Ordura arte Ku-
rutziaga ikastolan zebiltzan. "Kasik
ikastolan baino pozago dabiltza.
Frontoi garaia goa da eta eurentza-
ko errazagoa da", gaineratu du.
Aste honetan oporrak hartu
dituzte. Hala ere, zesta eskolako
Elena Barrenetxeak entrenatzen
jarraituko du. Izan ere, 14 urteko
durangarrak torneo bat jokatu-
ko du Donostian. Modalitateko one-
nek parte hartuko dute.

Hurrengo asteburuan ere
badago zegaz gozatu, Andra Ma-
ri guraso elkarteak kanpaldia
antolatu du-eta herriko plazan
gaztetxoekin. Uztailaren 9rako
eta 10erako aurreikusita da-
goen ekimena bueltan da urte
biko etenaren ondoren. Egural-
di txarra egiten badu ekimena
uztailaren 16tik 17rako astebu-
rura atzeratuko dute.

Martxan da udako argazki lehiaketa.
Igo zure argazkiak
irailaren 16ra arte

UDAKO
8. ARGAZKI
LEHIAKETA

 **anboto**



Durungaldeko 2021eko
argazkia
IRABAZLEA

Durangaldetik kanpoko
2021eko argazkia
IRABAZLEA



2 KATEGORIA, 4 SARI

DURANGALDEKO ARGAZKIRIK ONENA

- Epaimahaiaren saria: Al Camporen eskutik, bidaiatzeko maleta bat Euskal Herriko produktuz betea.
- Publikoaren saria: Garai landetxean egonaldia.

DURANGALDETIK KANPOKO ARGAZKIRIK ONENA

- Epaimahaiaren saria: Al Camporen eskutik, bidaiatzeko maleta bat beren markako Gourmet produktuekin.
- Publikoaren saria: tablet bat.

ANTOLATZAILEA



LAGUNTZAILEAK


Informazio & Telekomunikazioak


DURANGO


Garai
Landetxea

Informazio gehiago www.anboto.org webgunean



Martitzenean hasi zituzten jaiak Berrizen.

Luhartz, Etxekalte eta Nizeren kontzertuak izango dira asteburuan Berrizko jaietan

Berrizko Jai Batzordeak txupinazoa jaurtita hasi zituzten jaiak martitzenean

BERRIZ • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Etenaldiaren ondoren, bueltan dira Berrizko San Pedro eta Santa Isabel jaiak. Martitzenean hasi zituzten jaiak, Jai Batzordeko kideek pregoia irakurrita.

Jai Batzordeko kideek gustu eta adin guztietarako egitaraua antolatu dute astebururako. Gaur, esaterako, umeentzako parkea egongo da. Bestalde, Markeliñe antzerki taldeak *Homiens* ikuskizuna egingo du, 19:00etan, Elizondo plazan. 20:00etan batukada egongo da

Berrizko Jai Batzordeak gustu eta adin guztietarako egitaraua antolatu du astebururako

The McKesy's Clan Band taldearen eskutik, eta 21:00etan tortilla lehiaketa, udaletxeko lorategian. Gauean, Luhartz erromeria taldeak Elizondo plazan joko du, eta Etxekalte eta Oki Moki taldeek txosnagunean.

Uztailaren 2an, zapatua, paela lehiaketa egongo da udale-

txeko lorategian, 14:00etan. Eta txosnagunean herri bazkari autogestionatua; bakoitzak bere tuperra eraman beharko du. 18:00etan kuadrillen jaitiera egongo da, txosnaguneak antolatuta. 20:00etan dantzariak Dantzari Dantza entseatuko dute, Elizondo plazan, eta 21:30ean Garilak 26 taldeak kontzertua joko du. 22:30ean suzko zezena egongo da plazan, eta Nizek, Joseba Irazokik eta DJ Rosa Marik kontzertua joko dute txosnagunean.

Ez labaintzeko tratamendua egingo dute bide-zoruan

Aurrekontu parte hartzaileen barruan egitasmo bik egin dute aurrera, tratamendu ez-labaingarria jartzea eta Bidebarrieta kalean gabonetako argiteria jartzea

IURRETA • AITZIBER BASAURI

Iurretako Udalak ez labaintzeko tratamendua egingo du bide-zoruan, eta Bidebarrieta kalean Gabonetako dekorazioa ipiniko du. Iurretarren bederatzi proiekturen artean aukeratu dituzte egitasmo bi horiek aurtengo aurrekontu parte hartzaileen barruan. Guztira, 157 lagunek parte hartu dute.

Udalak 50.000 euroko aurrekontua du eta botorik gehien lortu duen proiektuak 30.000 eurotik gora eskatzen duela kontuan hartuta, aipaturiko egitasmo biak gauzatzea erabaki dute. 28.429 euro erabiliko dituzte bide-zoruan ez labaintzeko tratamendua egiteko, eta 20.449 euro Bidebarrieta

kalean Gabonetako dekorazioa ipintzeko.

157 lagunek parte hartu dute aurrekontu parte hartzaileen bozketan

Komun publikoa

Bestalde, datozen asteetan komun publikoa ipiniko dute Amilburun. Iazko aurrekontu parte hartzaileetan nagusitu zen proiektua. "Aurten hornidura arazoak izan direnez, kokapen hori aurreikusitakoa baino gehiago atzeratu da", argitu dute udal arduraduek.



Bidebarrieta kalean Gabonetako argiteria ipintzearen alde bozkatu dute iurretarren.

Garain panelak ipini dituzte eguneroko elementuen atzean dagoen zientzia ezagutarazteko

EHUren eta Nafarroako Unibertsitatearen 'Zientzia kalean' erakusketa ibiltaria uztailaren 17ra arte egongo da ikusgai

GARAI • EKAITZ HERRERA

Euskal Herriko Unibertsitatearen eta Nafarroako Unibertsitateko Zientzia Museoren *Zientzia kalean* erakusketa ibiltaria uztailaren 17ra arte egongo da ikusgai Garain. Egitasmoaren bultzatzaileek "modu enpirikoan" frogatu gura dute "zientzia eguneroko bizimoduaren inguratzen gaituzten gauza guztietan txertatuta dagoela". 11 infografiatan, iturriko ura, jogurta, zuhaitzen hostoak, ogia, garagardoa, telefono mugikorra edo barra kodea aztertuko dituzte ikuspegi zientifiko batetik. Erakusketa Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako udalerrietan zehar ibiliko da atzera eta aurrera, eta Garain egingo du lehenengo geldialdia. Epea amaiturikoa, erakusketa Garaitik Zuiara

(Araba) joango da. Egitasmoaren antolatzaileek zientzia dibulgazioa han-hemenka zabaltzeko gura dute era honetako erakusketak berbal-dietara, azoketara eta halakoetara zabalduta.

Erakusketako 11 panelek ogiaren, zerbezaren zein hostoen atzean dagoen zientzia erakusten dute

Erakusketako irudiak esku-ratzeko interesa duenak panel bakoitzean dagoen QR kodera jo dezake edukia deskargatzeko. Modu horretan, erabiltzaileak une oro kontsultatu eta partekatu ahaliko du informazioa.



'Zientzia kalean' erakuskeata ibiltaria Garaiko herrigunean ipini dute.

Zaldibarko gaztetxean auzolanera deitu dute uztailerako

ZALDIBAR • A. M.

Zaldibarko gaztetxea udarako prestatzeko, bertako Gazte Asanbladak auzolanera deitu du. Zaldibarko jaiak pasatu ostean, udako denboraldirako prestatuko dute gunea. Deialdiak uztailaren 12rako eta 13rako egin dituzte, egun bietan 10:00etarako eta 16:00etarako. Hirugarren deialdi bat ere egin dute auzolanerako, uztailaren 14rako, 10:00etarako. Azken egun horretan, bertaratuek elkarregaz bazkalduko dute jardunaldiak bo-robiltzeko. Aurrelanaren ondoren, terraza zabalduko dute uztailaren 21ean; aurretik, gunea girotzeko, pintxopotea ere egingo dute.

Metalgintzako beharginek mobilizazio jendetsuak egin dituzte Durangaldean hitzarmena berritzea eskatzeko

Egueneko mobilizazioetan grebalari bat atxilotu zuten "agintearen aurkako atentatua" egitea egotzita

DURANGALDEA • EKAITZ HERRERA
Metalgintza arloan ordezkariak duten sindikatuek (ELA, CCOO, LAB, UGT, ESK, CGT eta CNT) patronalaren "jarrera ardurabakoa" salatu dute asteon. Metalgintzako hitzarmena berritzeko eskariak direla eta, sindikatuek "negoiazioa blokeatzen" ibiltzea egotzi diote Metaleko Lantegien Bizkaiko Federakuntzari (FVEM). Hori dela eta, mobilizazio bi egin dituzte. Eguazten arratsaldean kontzentrazioa egin zuten Durangoko Andra Marian. Eta egue-
nean manifestazioa egin zuten Iurretatik Durangora. Bidebarrie-
ta kaleko biribilgunetik hasita Andra Marira joan ziren. Bertan, zazpi sindikatuek adosturiko komunikatua irakurri zuten. Gaurkoa izango da sindikatuek

deituriko lanuzteen azken eguna, oraingoz.

Grebalari bat atxilotuta
Ertzaintzak grebalari bat atxilotu zuen Iurretako Arriandi industrialdean, eguen goizean. 10:00etan

"hainbat lagun edukiontzia gurtzatzen eta erretzen ahalegindu" zela adierazi du Segurtasun Sailak. Atxilotuari "agintearen aurkako atentatua eta erresistentzia larria" egotzi dizkiote. Horrez gainera, beste grebalari bat ere identifikatu

zuten. LAB sindikatuak, baina, gezurtatu egin du Segurtasun Sailaren bertsioa. Sindikatuaren esanetan, grebalariak "gosaltzen" zeuden une horretan. Patronalak eta sindikatuek 2019an sinatu zuten Metalgintzako azken hitzarmena.



Metalgintzako beharginek elkarretaratzea egin zuten Andra Marian, eguazten arratsaldean.

Gerediagak eta Mankomunitateak kultura sustatzeko ituna sinatu dute

DURANGO • A.M.
Hitzarmenak Durangaldeko ondare historikoa, soziala eta kulturala sustatzeko helburua du; 10.000 euroko aurrekontua du. Nerea Mujika Gerediaga elkarteak presidentea eta Mirieia Elkoroiribe Mankomunitateko presidentea sinatu dute; Durangaldeko hainbat herritako alkateek ere parte hartu du ekitaldian. Elkoroiriberen berbetan, "pauso handia" da: "Eskualderako lanean dabilzan elkarteak ez dira asko, eta euren lana aitortu egin behar da", adierazi du. Nerea Mujikak ere esker oneko berbak eduki ditu: "Proiektu biek hartu-emanak eduki dute sorreratik. Hainbat urtez egoitza ere partekatatu dugu. Pauso garrantzitsua da".

Tortilla eta bakailao txapelketak eta Laiotz taldearen erromeria, gaur, Apatamonasterioko San Pedro jaietan

Txopo txikia eta txopo handia jasota eta pregoia emanda hasi zituzten, martitzenean, Apatamonasterioko jaiak



Jaietako hasiera ekitaldiko argazkia.

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR
Atxondarrak jaietan murgilduta dabilta azken asteotan. Joan zen asteburuan Axpeko San Joan jaiak ospatu zituzten eta asteburu honetan San Pedro jaiak ospatuko dituzte. Sanpedroei ekainaren 28an eman zieten hasiera, txopoa altxatuta. Ohitura den lez, lehenengo, Gazte-txean txopo txikia apaindu zuten, eta, ostean, herritarrak kalejiran igo ziren Irubidetik trikitilariekin. Gero, txopo biak altxatu, pregoia eman eta kontzertu akustikoagaz hasi zituzten jaiak.

Asteburu betea
Gaur, uztailak 1, Atxondo Harre-
ra Herria elkartearen eskutik, ipuin kontaketa egongo da plazan, 19:00etan. Eta, ondoren, 20:00

bueltan, bakailao eta patata-tortilla txapelketak egingo dituzte, plazan bertan. Jai Batzordeak mahai-oiha-
lak, ogia eta kafea ipiniko ditu txapelketa bietarako. Gauean, 23:00etan, Laiotz taldeak erromeria joko du.

Uztailaren 2an, igel, paella eta mus txapelketak egongo dira, besteak beste. 17:00etan jolasak egongo dira umeentzat, eta 18:30ean Aldats elektro-txarangak herriko kaleak animatuko ditu, plazatik hasita. Bestalde, 22:00etan, Jaimones, State Alerta eta Keike taldeen kontzertuak hasiko dira.

Atxondarrek uztailaren 3an emango diete amaiera jaiari, domekan. 11:00etatik 14:00etara artisau eta nekazari azoka egongo da, plazan. 13:00etan, Amillenaren eskutik, pintxo dastatzea egongo da. Eta 19:00etan Olinda taldearen kontzertua izango dute. Taloa janda eta txopoa kenduta amaituko dituzte aurtengo San Pedro jaiak.

AI AMA

JAN TA EDAN
DURANGO

Josemiel Barandiaran Kalea, 2,
48200 Durango
946 23 22 40

GORASORA
kafetegia

Arriluzea 2 baxua (Tabirako auzoa)
48200 Durango
946 81 13 84

NAPOZT

Josemiel Barandiaran Kalea, 6,
48200 Durango
946 00 40 86

Bokale, Brass Band eta Marmaille Post-Enfare fanfarreek irabazi dute Haizetara

Haizetarako publikoaren saria Kamikaze Beat Band talde mexikarrak irabazi du



Saridunen argazkia.

ZORNOTZA • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Asteburuan Haizetara jaialdiaren XV. edizioa jokatu da Zornotzan. Lehiaketako lehenengo saria talde bik irabazi dute: Bokale Brass Band talde lapurtarrak eta Toulouse La Marmaille Post-Fanfare taldeak. Halantxik erabaki dute Ainara Ortégak, Aritz Labradorrek, Amaia Ispizuak eta Fran Lasuenek osaturiko epaimahaiak. Bestalde, Kamikaze Beat Band talde mexikarrak irabazi du publikoaren saria. 4.000 euro eskuratu zituzten denen artean. Zornotzarrek Haizetara web orriaren bitartez eman zuten botoa. Guztira, 4.394 herritarrek parte hartu zuten. Pablo Martín Hip Horns Brass Collective talde katalaneko tronboi-jotzaileak jaso zuen musikaririk onenaren saria; 1.000 euro, hain zuzen ere.

Politikan

Neskutz Rodriguez Ormazabal
Herriaren Eskubidea



Durango beste begirada batekin

Udako oporrak gertu ditugula, eguneko errutinatik deskonektatzeko bidaiaitzeko aukerak bilatzen ditugu. Turisten betaurrekoak jantzi eta leku berriak bisitatu, haien historia eta kultura ikasi eta gastronomia ezagutzen saiatzen gara. Hala ere, Durangora itzultzean, begirada hori alde batera utzi eta egunero-kotasunera eta eguneroko dinamikara bueltatzen gara. Herriaren Eskubidea-tik Durangon ere turisten betaurrekoak jantzea proposatzen dizuegu, herriaren bitxikeriak behatzeko.

Artikulu honetan, Alde Zaharreko berezitasun batzuk kontatuko dizkizuegu:

Ba al zenekien Andra Maria Basilikako sarrera nagusiaren eskuineko aldeko zoruan "A" masoniko bat dagoela marraztuta? Gainera, elizpeko harriztatzea labirintoa da berez. Jerusalemeko edo Santiagorako erromesaldia irudikatzen duela uste da.

Udaletxera hurbildu eta plazaren zoruan 1857an Durangoko planoan irudikatzen duen plaka bat aurkituko dugu. Barrerkaletik jarraituko dugu Lariz Torrerraino. Jauregi honen fatxada gargola ezberdinekin apainduta dago. Bat bereziki deigarria da, sexu-ekintza bat antzeztzen duelako.

Eta, azkenik, Santa Anara iritsiko gara. Arkuaren hegoaldean Austriarren armariak grabatuta jarraitzen du. Hau izan zen XVIII. mendean berrekitzean jarri zen baldintza bakarra.

Hauk dira Durangoren gutizia batzuk, baina badira gehiago ere. Beraz, alda ditzagun betaurrekoak noizean behin, eta beste begirada batekin joan gaitezten Durangora. Eta, nola ez, zuen aurkikuntzak partekatzera animatzen zaituztegu.

Durungaldea asteen

Zornotzan autobus zerbitzua ipini dute Gure Eskuren Pirinioetako Bidera joateko

ZORNOTZA | Zornotzako Gure Eskuk autobus zerbitzua ipini du Lindus mendira joateko. Zornotzarrei bertako tontorra argitzea egokitu zaie Pirinioetako Bidean. Autobusak, uztailaren 2an, 15:00etan, irtengo du Zornotzatik. Pirinioetako Bidea amaituta, itzulera ordua 03:00etarako dago aurreikusita.

Bigarren eskuko azoka egingo dute abenduaren 24an, herriko plazan

ZORNOTZA | Zornotzako Udalak martxoan kaleraturiko 32.000 Amorebonoak agortu egin dira. Dena dela, dendetan trukatu barik geratzen direnak eskuragarri egongo dira abuztutik aurrera. Bestalde, udalak herritarren harrera txalotu du, bonu bakoitza erabiltzeak udalerriko saltoki eta establezimenduei lagunduko

Melillako sarraskia salatzeke eta mugetako heriotzen aurkako elkarretaratzea, gaur

DURANGO | Durungaldeko eragile sozialek elkarretaratzea egingo dute gaur arratsaldean, uztailak 1, Espainiako Melilla hirian gertaturiko sarraskia salatzeke. "Muga eta migrazio politikak" eta sarraskian gutxienez 37 migratzaile hil zirela salatuko dute. Elkarretaratzea Durangoko Andra Marian izango da, 19:30ean.



Identitate, orientazio eta genero disidenteeek kalera irten dute Abadiñon

ABADIÑO | Izpilikuak talde feministaren deialdiari erantzunda, martitzenean abadiñarrek kalera irten zuten LGTBI Harrotasuna aldarrikatzeko. "Gaur, gorputz, sexualitate eta identitate desberdinak bizi ditugun herritarrek kalera irten dugu. Garena aldarrikatzeko irten dugu kalera, harro gaudela esateko. Gure bizitzak, gure sexualitateak, publikoki bizitzeko, eta arau normatiboak min egiten duela adierazteko", adierazi zuten manifestazioko kideek martxaren amaieran. Horrez gainera, LGTBI komunitatea "jasaten dabilen indarkeriaren goraldia eta gorrotoa" salatu zituzten.

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak: Bixente Kapanaga 9, - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

Bulegorako
zigiluak
Fotolitoak

Betikoak
flexografia

946 202 241

Bixente Kapanaga, 9
48215 IURRETA



Kalebarria z/g - Durango
Tel.: 946 201 893
Faxa: 946 816 403





Jolasten ikastea errazagoa delako

Andra Mari kalea 9 - 94 400 39 69



LABIRINTOA




DIFERENTZIAK

Topatu 8 diferentziak.



MARGOTU

Margotu itsasontzia ondoko koloreekin.





Durangoko Udaleko eta museoko ordezkariak, eta ekimeneko sustatzaileak eguazteneko aurkezpenean.

Gazteak museora zelan erakarri aztertuko dute gazteen iritzia jasota

Uztailaren 20an lanketa saio bat egingo dute 18tik 25 urtera bitarteko pertsonentzat

MUSEOA • JOSEBA DERTEANO

Durangoko Arte eta Historia museoak inoizko bisitari kopururik handiena hartu zuen iaz, baina ez zen izan 18tik 25 urtera arteko gazteei eskerrak. Adin tarte horretan hutsune bat igartzen da eta ez Durangoko museoan bakarrik, denetan baino. Horrela, Durangon ikerketa bat hasiko dute hutsune horren arrazoia jakiteko eta egokiarri buelta ematen hasteko.

Mondragon Unibertsitatean Lidergo, Ekintzaile, Berrikuntzan Gradua ikasten dabilzan eta OM-MA gazte enpresaren parte diren

hiru gaztek egingo dute ikerketa: Maren Urresti ondarroarrak, Laura Olabarria zarauztarrak eta Aiora Iturmendi ordiziarrak. Hirurek 20 eta 21 urte artean dituzte.

Lanketa saioa

Horretarako, uztailearen 20an lanketa saio bat egingo dute 18tik 25 urtera bitarteko gazteekin. 10:00etatik 14:00etara, zenbait gai landuko dute, hainbat ertzetatik. Han baturiko informazioagaz eta ondorioekin txosten bat egingo dute, museoak garatu beharreko ekintza posibleak zehazteko. Lan-

keta saioan parte hartzeko interesa duten 18tik 25 urtera arteko gazteek gaurtik uztailearen 18ra arte zabalik dute izena emateko epea, 618 21 33 23 telefonoan.

Honako hau ez da antzerako lanketa bat egiten duten lehenengo aldia. Aurretik, Donostiako San Telmo museoan egin zuten. "Eurekin hartu-emanetan ipini ginen eta oso esperientzia positiboa izan zela eta ideia berritzaileak irten zirela esan ziguten", adierazi zuen Durangoko Museoko zuzendaria den Garazi Arrizabalagak ekimenaren aurkezpenean.


EHUko ikastaroetan Sarrionandiaren lana aztertuko dute

EHUn 'Joseba Sarrionandiaren literatura: bitakora kaiera' ikastaroa antolatu dute uztailearen 18 eta 19rako.

LITERATURA • A. M.

EHUko udako programazioaren barruan ikastaro bat antolatu dute Joseba Sarrionandiaren "unibertso literarioaz" hausnartzeko eta "haren testuei buruz pentsamendua eraikitzeko" helburuagaz. Uztailearen 18an eta 19an izango da, EHUk Bilbon duen Bizkaia aretoan. Mari Jose Olaziregik eta Nerea Eizagirek zuzenduko dute ikastaroa, eta, besteak beste, hizlari hauek parte hartuko dute: William Anthony Douglasssek, Eider Rodriguez Martinek, Leire Bilbao

Barruetabeñak, Aiora Jaka Irizarrek eta Mikel Aierbe Sudupek. Sarrionandiak berak ere parte hartuko du, bai hizlari modura (*Bizitzan artekatutako liburuak*), baita Ines Osinagagaz (*Olatu arteko txalupa arraroa*) eta Ruper Ordozikagaz (*Memoriaren mapa. Abesti batzuen inguruko elkarrizketa*) batera, musika-literatura ikuskizunetan. Zabalik dago ikastaroan izena emateko aukera, uik.eus webgunean. "Autore, aditu eta irakurleekin auzolanean gogoeta egiteko gunea izango da", azaldu dute antolatzaileek.



Joseba Sarrionandia. AINHOA IRAOLA

Gai librean

Gai-pourri

Utziko didazue zutabearen izenburuari apologia egiten, azkenaldian gauza asko eta labur pentsatzen baititut. Hortaz, izenburu eta kurtsiba asko ikusten badituzue ez zaitezte harritu. Behar du gizakiak batzuetan larregi ez pentsatu eta hurrengo fase batera pasatu.

Garagarrila: Garagarra uztatzeko hila-betea dela-eta deitzen omen zaio uztaileari garagarrila edo garila Bizkaian. Ez zen batere leloa berba asmatu zuena. Badirudi bazekiela udako hilabeteagaz batera zer etorriko zen: herrietako jaiak eta, hortaz, garagardoz beteriko 31 egun. Pandemia baten ostean edozeinek asmatuko luke horrelakoa izango genuela.

Iparraldismoa: Hain zuzen ere, uztaileagaz batera Euskal Herria Zuzenean musika jaialdiak atek zabalduko ditu Irisarrin (Nafarroa Beherea). Lehen aldiz bertan izango naiz. Gogoia nuen,



Igor
Galarza Intxausti
Kazetaria

(Barkatu txistea, markak ez dit ezer ordaindu). Dena baita festa. Ahaztu da edozein kezka. Bazen garaia, ezta?

mistikotasun eta handitasun puntu bat du. Asteburuan ezagun bati entzun diot Ipar Euskal Herrian antolatzen diren ekimenei puntu hori ematen dietela hedabideek eta euskal herritarrek. Ez ditugu berdin ikusten Herri Urrats eta Ibi-laldia; ez ditugu berdin ikusten EHZ eta 40 minutu rock jaialdiak; ez diegu arreta bera jartzen Leitzako euskalkiari eta Baigorrikoari. Ez dakit zenbat duen egia-tik, eta ez dakit zenbat duen beharretik, baina kezkatzen nau euskalgune batzuk "gehiagi" zaintzeak. Euskal Herrian zaintza beharra dago, baina zaintzea edo bultza egitea desberdina da.

Dinosauroa: Euskal Herria diodala, Bertsolari Txapelketa Nagusirako sarrerak hartzeko pazientzia ezinbesteko osagaia

zen. Euskal Herria zain egon zen Bertsozale Elkartearen webgunea konpon zedin, urte osoan deitu ez ditugun gertukoei idazten jardun genuen denok, ea gure sarrerak erosi zitzaketen. Bitartean webgunera sartu ezin zinela abisatzen zuen dinosauroagaz jolasten aritu ginen batzuk...

Txapalatari: Baina ez da Gotaine-Irabaneraino joan beharrik bertso eta kopla onak entzuteko. Abadiñoko Mendiola auzoan giro zoragarria egon zen joan zen zapatuan, gazteak eta gazteagoak nor baino nor gehiago txapalataren bila. Leku askotan jaiak baziren ere, ez zen falta izan koplarik, giro ederrik eta garagardorik.

Hara, garagardora itzuli gara. Gaien pot-pourri honekin hasi eta Buckler batean sartzen zara (barkatu txistea, markak ez dit ezer ordaindu). Dena baita festa. Ahaztu da edozein kezka. Bazen garaia, ezta?



SIE7E

ANTZERKIA DURANGO :: Uztailak 2

'SIE7E' gurpil gainean ikusteko ikuskizun berezia, Durangon

Publiko guztiarentzako ikuskizun berritzailea da 'SIE7E'. Y Medio Teatro konpainiako kideek kale antzerkia eta areto antzerkia uztartu dituzte, "ikuskizun bi bat eginda aparteko gertaera baterako", azaldu dutenez. Gurpil gainean ikusteko obra da 'SIE7E', antzerki konpainiak sorturiko gurdi moduko batean garatzen dena. Barruan, zazpi metro koadro eskaseko espazioan, aktore bi eta hamabost ikusle batuko dira, hamar mi-

nutu eskaseko umorez beteriko piezez gozatzeko.

Detailaz beteriko miniaturazko espazio eszenikoa sortu du Y Medio Teatro konpainiak 'SIE7E' ikuskizunerako. Eguneroko objektuek bizia hartuko dute modu magiko batean, eskets harrigarriak osatuta. Durangoko Platerueneko terrazan emango dute 'SIE7E', zapatuan, uztailaren 2an. Emanaldi bi egingo dituzte. Lehenengo saioa 17:30ean hasiko da, eta bigarrean 21:00etan.

Uztailaren 1etik 3ra bitartean

ZALDIBAR jaiak

XXX. Areto-futbol maratona kiroldagian, Zaldia Futbol Taldeak antolatuta

Uztailaren 1ean

ATXONDO sanpedroak

Atxondo Harrera Herria elkartearen ipuin kontaketa, 19:00etan, plazan.

Herri afaria: bakailao

txapelketa eta patata-tortilla, 20:00etan, plazan (jai batzordeak mahai-oihalak, ogia eta kafea ipiniko ditu. Beste guztia norberak ekarri beharko du)

Laiotz taldeagaz erromeria, 23:00etan, plazan.

BERRIZ sanpedroak eta santaisabelak

Tribiala (12 urtetik gorakoentzat), 12:00etan, udaletxeko lorategian. **Umeentzako parkea: jumping, puzgarriak...** eskolako patioan (12:30-14:00/16:00-19:00).

3x3 saskibaloi txapelketa, 9 urtetik aurrera, 16:30ean, Berrizburu kiroldagian.

'Homiens' (Markelñe

konpainia), 19:00ean, Elizondo plazan.

Batukada The McKensy's Clan Band, 20:00etan, Elizondon.

Tortilla lehiaketa, 21:00etan, udaletxeko lorategian.

Luhartz taldea, 21:30ean, Elizondo plazan.

Kontzertua: Etxekalte + Oki Moki, 23:00etan, txosnagunean.

ZALDIBAR jaiak

Pilota partiduak, 17:00etan. Ondoren, **Durangaldeko gazte mailako finalak, ondoren emakumeen senior mailako pilota partidua**. Zaldia Pilota Taldeak antolatuta.

Uztailaren 2an

ATXONDO sanpedroak

Igel txapelketa, 11:30ean.

Kuadrillen paellak, eguerdian (mahaiak, mahai-oihalak, aulkiak eta kafea frontoian egongo dira eskuragarri. Ardoa txosnan erosteko aukera egongo da)

Mus txapelketa, 17:00etan, herriko tabernan.

Jolasak herriko ume eta familientzat, 17:00etan, plazan.

Aldats elektrotxaranga kalejiran, 18:30ean, plazatik hasita.

Kontzertuak: Jaimones + State Alerta + Keike, 22:00etan, plazan.

BERRIZ sanpedro eta santaisabelak

Kuadrillen bazkarirako lekuen zozketa, 10:00etan, Elizondo plazan.

Meza nagusia, 12:00etan.

Paella lehiaketa, 14:00etan, udaletxeko lorategian.

Bajadie, 18:00etan, txosnaguneak antolatuta.

Herriko igel txapelketa, 19:00etan. Izen-ematea, 18:30-19:00.

Dantzari Dantza entsegua, 20:00etan, Elizondo plazan.

Garilak 26 taldeagaz erromeria, 21:30ean, Elizondo plazan.

Suzko zezena, 22:30ean, Elizondo plazan.

Kontzertua: Nize + Joseba Irazoki +n Dj Rosa Mari, 23:00etan, txosnagunean.

DURANGO zirkua

'Mikra' (Berdinki Zirkus), 20:00etan, Aurora Abasolo parkean.

ELORRIO bisita gidatua

'Kaletarrak' Elorrioko kaleetan zehar bisita gidatua euskaraz, 11:00etan. Udalak antolatutako bisita gidatuak dira, eta, gutxienez bost eta gehienez 20 lagunekoa izango dira. Aldez aurretik izena eman behar da turismoa@elorrio.eus helbidera idatzita. Bestela, 94 682 01 64 edo 688 776 270 telefono zenbakietara deitu daiteke.

IURRETA sanmartinak

Amatzako 6. Trikitixa Jaialdia, 19:00etan, Amatzauzoan.

Trikitilari hauek arituko dira:

Leonen Orroak; Agurtzane eta Ion Elustondo; Imanol Arrola, Julen Begoña, Susana Gomez eta Jon Ander Azkue; Irati. Gutierrez eta Amets Ormaetxea; Gorka Valdes eta Mikel Elizaran; eta Iñaki Plaza eta Alex López.

Afarirako txartelak lurretako Orkea tabernan eta Durangoko Mesoi Berria tabernan eskuratu daitezke, 15 euroan. Baita erreserba bidez amatzatrikitixa@gmail.com helbide elektronikora idatzita ere.

MALLABIA azoka

Bizikleta azoka, 09:00etatik 14:00etara, plazan. Bizikleta berri eta zaharren erakusketa.

ZALDIBAR jaiak

Zaldibarko Korralaren kontzertua, 19:00etan, elizan. Zaldibarko Korralaren 75. urteurrenaren barruan antolaturiko kontzertua.

Uztailaren 3an

ATXONDO sanpedroak

Artisau eta nekazari azoka, 11:00etatik 14:00etara, plazan.

Pintxo dastatzea Amillenaren eskutik, 13:00ean, plazan.

Olinda kontzertua, 19:00etan, plazan. **Taloak eskainiko dira eta txopoa kenduko dute.**

DURANGO musika

Musika Arandoñoko Dorrearen Azpian: Gerardo Rifón (organo txikia), Ainhoa Zubillaga (mezzosopranoa) eta Francisco Herrero (biolina), 20:00etan, Andra Mariko elizpean. Arandoño kultur elkartearen 25. urteurrenaren barruan antolatutako emanaldia.

ELORRIO Berrio Otxoa jaia

Azoka ekologikoa, goizean, aparkalekuan. Elorriko Ekologi taldeak antolatuta.

Pilota partiduak, 18:30ean, pilotalekuan.

ELORRIO antzerkia

'El gran final' (Brucaá Circus konpainia), 20:00etan, plazan.

ELORRIO bisita gidatua

'La villa' Elorrioko kaleetan zehar bisita gidatua gaztelaniaz, 11:00etan. Udalak antolatutako bisita gidatuak dira, eta gutxienez bost eta gehienez hogeitaz lagunekoa izango dira. Aldez aurretik izena eman behar da turismoa@elorrio.eus helbidera idatzita. Bestela, 94 682 01 64 edo 688 776 270 telefono zenbakietara deitu daiteke.

ZALDIBAR lehiaketa

XXVIII. argazki rallya, 08:30etik 14:30era, liburutegi zaharrean.



TRASH!

ANTZERKIA **ELORRIO** :: Uztailak 2

'Trash!', komedia, perkusioa eta birziklapena uztartzen dituen obra

Zaborra birziklatzeko lantoki batean garatzen den ikuskizuna da 'Trash!'. Birziklapen zentro horretako lau langilek bertara heldu diren deneriko hondakinei erabilpen berria emango diote, eta ikuslegoa gizartearen gehiegizko kontsumismoari buruz hausnarketa egitera eramango dute. Butano-botilak, aterkiak, pilotak, erreminta-kaxak, zabor poltsak, klaxonak... denerik helduko da lau langileen eskuetara,

umore eta zorroztasun handiko musika emanaldi ikusgarri bihurtuz.

Birziklapenaren aukerei buruzko bizi-ikuskizuna eta energetikoa da 'Trash!'. Halaxe diote Yllana & Töthem konpainiako kideek, bitartekari moduan perkusioa, mugimendua eta umorea erabiliz. Musikaire jaialdiaren eskutik aurkeztuko dute 'Trash!', uztailaren 2an 22:30ean, Elorrioko plazan.

Uztailaren 2an eta 3an

ZALDIBAR **jaiak**

Ur-jolasak, Olazarren (11:00-13:00 / 16:00-19:00).
'Zaldibarko Korralaren 75. Urteurrena' argazki erakusketa, udaletxeko plazan (10:00-14:00 / 17:00-20:00).

Uztailaren 4an

ELORRIO **Berrio Otxoa eguna**
Txistularien kalejira, 10:00etan.

Meza nagusia Basilikako koruaren emanaldiarekin, 12:00etan.

Luntxa, 13:00ean, Berrio Otxoa kalean.

Berrio Otxoa Abesbatzaren emanaldia, 20:00etan, Santa Ana plazan.

Uztailaren 6an

ABADIÑO **paintball**

Paintball jardunaldia, 11:30etik 13:30era bitartean (2004-2007. urte bitartean jaiotakoak), eta 16:30etik 19:30era (2008-2012. urte bitartean jaiotakoak), Traña-Matienako Arzubia parkean. Uztailaren 1a baino lehenago eman behar da izena, Errota kultur etxean edo Udal Mediatekan.

BERRIZ **tailerra**

Musika tailerra Jon Urrutiaren eskutik, 17:00etan, Olakueta plazan.

ZALDIBAR **jaiak**

Argazki emanaldia, 19:30ean, liburutegi zaharrean.

Uztailaren 3ra bitartean

DURANGO **erakusketa**

'Picassotik Barcelóra', Arte eta Historia Museoan. 23 artistaren 35 lan ikusteko aukera.

Uztailaren 7an

ABADIÑO **paintball**

Paintball jardunaldia, 11:30etik 13:30era bitartean (2004-2007. urte bitartean jaiotakoak), eta 16:30etik 19:30era (2008-2012. urte bitartean jaiotakoak), Traña-Matienako Arzubia parkean. Uztailaren 1a baino lehenago eman behar da izena, Errota kultur etxean edo Udal Mediatekan.

ZALDIBAR **jaiak**

HERRIXE JAIXEN jaitsiera, 18:00etan, Zaldua plazatik, eta txosnen irekiera.
Donien Atxa altxatzea, 18:30ean. Ondoren, **jaietako kartel lehiaketaren sari banaketa**.
Dantzak, 19:00etan. Jarraian, **jaien hasiera iragartzeko**

txapligua jaurtiko du Zaldua saskibalo taldeko emakumeen ekipoak, eta, gero, **buruhandiak**.

Trikibertsopoteoa, 19:30ean, txosnagunetik hasita.

Odoloste-jana, 20:00etan, Bekoetxe kalean.

Kontzertua: Worth It, 23:00etan, txosnagunean.

Dj Zaukena Zauk, 00:00etan, txosnagunean.

Uztailaren 8an

ABADIÑO **sankristobalak**

Berakatz zopa auzokoentzat, 20:00etan, Mendiolako San Kristobal jaiei hasiera emateko.

Kontzertua, 22:30ean: **Niko Etxart + HAPA HAPA**.

BERRIZ **dantza**

'Dye-Dye' eta 'Otempodiz' dantza ikuskizuna (Ertza dantza konpainia), 19:00etan, eskolako patioan.

DURANGO **poema**

'Begia zerumugan' musika eta poemak Dana Moya eta Miren Agur Meaberen eskutik, 20:00etan, Bizenta Mogel liburutegian.

ELORRIO **musika**

'#mauriziakezdauinorhil' musika ikuskizuna (Ines Osinaga, Olatz Salvador eta Lorea Argarate), 22.30ean, plazan.

ELORRIO **musika**

'Kantu bat gara' (Jon Maia), 22:30ean, plazan.

ZALDIBAR **jaiak**

Familientzako mendi irteera, 08:30ean eta 09:30ean, udaletxeko plazan hasita.

Herri kirolak, 12:30ean, udaletxeko plazan: **aizkolariak eta iparraldeko jokoak**.

Apar-festa, 17:00etatik 18:00etara, udaletxeko plazan.

ElektroHATXEranga, 19:00etan, txosnagunetik hasita.

Kontzertuak: KEIKE + KOP, 23:00etan, txosnagunean.

Dantzaldia: Dj Josemari, 23:00etan, Euskal Herria etorbidean.

Kulero, kantzontzilo eta tanga martxa, 03:00etan, txosnagunean.

Uztailaren 8tik 17ra bitartean

DURANGO **erakusketa**

Enrike Larramendiren margolanak, Ezkurdi erakustaretoan. Durangaldeko Artisten Elkarteak antolatuta.

Zine- ma

:: Durango ZUGAZA ZINEMA

• **Minions. El origen de Gru**

barikua **1**: 19:00
zapateria **2**: 17:00 / 17:45 / 19:30
domeka **3**: 17:00 / 17:45 / 19:30
astelehena **4**: 18:00 / 20:15
martitzena **5**: 19:00
eguzartena **6**: 18:30

• **Mamá no enRedes**

barikua **1**: 19:30
zapateria **2**: 17:45 / 20:00
domeka **3**: 17:45 / 20:00
astelehena **4**: 18:00 / 20:15
martitzena **5**: 19:30
eguzartena **6**: 19:00

• **La isla de Bergman**

barikua **1**: 19:30
zapateria **2**: 20:00
domeka **3**: 20:00
astelehena **4**: 18:00 / 20:15
martitzena **5**: 19:30
eguzartena **6**: 19:00

::Zornotza ZORNOTZA ARETOA

• **Lightyear**

barikua **1**: 20:00
zapateria **2**: 20:00
domeka **3**: 20:00
astelehena **4**: 20:15

Zaldibarko areto-futbol maratoiak 30. aldia beteko du, asteburu honetan, 16 bat talde batuta kiroldegian

Pandemia aurretik 16 bat talde batzen zituzten urtero Zaldibarko kiroldegian, eta Zalduako antolatzaileek kopuru horri eustea itxaroten dute aurten



Herriko eta Durangaldeko talde askok parte hartzen dute, baina Bizkaiko eta Gipuzkoako hainbat tokitatik ere etortzen dira.

ARETO-FUTBOLA • J.D.

Zaldibarko futbito maratoiak 30. aldia beteko du asteburu honetan. 90eko hamarkadan Bizkaiko herri askotan loratu ziren txapelketak desagertzen joan dira apurka, baina Zaldibarkoak bere estatusari eutsi dio eta Bizkaian erreferente izaten

jarraitzen du. Pandemia aurretik hamasei bat talde batzen ziren urtero Zaldibarko kiroldegian, eta aurten kopuru horri eustea itxaroten dute. "Hainbeste urte joan eta horrelako ekimen bati martxan eustea pozgarria da guretzat. Giro polita sortzea eta denak ondo irte-

tea espero dugu", adierazi du Zaldua Kirol Elkarteko presidentea den Arkaitz Padillak.

Gaur eta bihar kanporaketak jokatuko dituzte. Domeka goizean finalerdiak izango dira eta irabazlea arratsaldean erabakiko da, 18:00etan hasiko den finalean.

Aurretik, hirugarren eta laugarren posturako partidua jokatu dute.

Denboran eusten

90eko hamarkadan sortu zen futbito maratokia, Zaldibarko lagun kuadrilla bati eskerrak. Bi-hiru edizio antolatu eta gero, Zaldua Kirol

Elkartek hartu zuen erreleboa. Lehenengo urte horiek zoramena izan ziren, mota honetako maratoiak modan zeuden eta. "Boom itzela egon zen. Gogoan dut, behin, kanporaketa aurrekoak antolatu behar izan zirela izena emandako denei tokia egiteko. Gero, 32 taldera mugatu zen parte hartzea", dio Padillak. Orduan, maratoi gehiago ere bazegoen eskualdean. Esaterako, Zaldibarkoaren aurretik, Berrizen ere antolatzen zuen bat

Txapelketak desagertzen joan dira apurka, baina Zaldibarkoak bere estatusari eutsi dio

guraso elkarteak, eta oraintsura arte martxan egon da. Sasoi batean, Gabon inguruan, Durangon ere antolatzen zen bat, Ezkurdiko pilotalekuan.

Gerora, hasierako boom hori apaltzen joan da apurka. Bizkaiko maratoi batzuk bertan behera ere geratu dira, baina Zaldibarkoak erakargarria izaten jarraitzen du talde askorentzat. Urtero 15 taldetik gora batu izan ditu; herrikoak eta Bizkaikoak izaten dira gehienak, eta inoiz Valladolid inguruko talderen bat ere etorri da.

Ekaitz Molina eta Imanol Torre abadiñarrek Barakaldo taldeagaz jokatu dute aurten

Molina Gernikatik joan da, eta Torre Durangoko Kulturaletik. Barakaldo Hirugarren Mailan dabil eta hainbat fitxaketa egiten dabil. Aurten mailaz igotzea izango dute helburu

FUTBOLA • J.D.

Barakaldo datorren denboraldiko taldea osatzen dabil eta hainbat fitxaketa iragarri du. Eurretari bi abadiñarrek dira: Ekaitz Molina eta Imanol Torre.

Ekaitz Molina (Abadiño, 1990) erdilaria pozik dago Barakaldo taldeagaz hasiko duen etapa berriagaz. "Ilusioa. Horixe da Barakaldo klubetik helarazi didatena, ondoen definitzen duen berba, eta horretxek konbentzitu nau. Kluba merezi duen tokira bueltatzen ahaleginduko gara", adierazi du Molinak sare sozialetan.

Molinak 20 urteagaz debutatu zuen Hirugarren Mailan, Durangoko Kulturala taldeagaz. Sei den-

boraldi eman zituen bertan eta orduko Bigarren B Mailara igo zen Durangoko klubagaz. 79 partidutan 32 gol sartu zituen. 2019/2020 denboraldian Amorebieta taldeak fitxatu zuen eta eurekin Bigarren Mailara igo zen. Aurreko denboraldian Gernikan aritu zen eta handik heldu da Barakaldora.

Imanol Torre (Abadiño, 2000) ezker hegaleko jokalaria Athleticen kimuen taldean ibili zen umetan. Kadeteetan Abadiño klubean aritu zen eta handik Durangoko Kulturalera salto egin zuen. Kulturalagaz 19 urteagaz debutatu zuen Hirugarren Mailan. Harrezkero 64 partidu jokatu ditu bertan.



Ekaitz Molina eta Imanol Torre Lasasarre futbol zelaian, Barakaldoko kamisetagaz.

Garazi Sampedrok Munduko Kopako lasterketa bat jokatzeko aukera lortu dezake Bastidan

Lidergoari eusten badio, Sampedro Comapedrosa (Andorra) mendiko lasterketan lehiatu ahal izango da

MENDI LASTERKETAK • J.D.
Garazi Sampedrok mugarrak berri bat ipini dezake bere kirol ibilbidean. Orain arteko lidergoari eusten badio, Euskal Kopako lasterketan lortzen dabilen erregularitasunari eusten badio, mendi korrikalari atxondarrak Munduko Kopako lasterketa bat jokatzeko aukera izango du. Andorra

rran jokatu den Comapedrosako lasterketan lehiatu ahal da, munduko korrikalaririk onenen artean. "Egundoko motibazioa dut, orain arte sekula ez dut eta horrelako aukerarik eduki", aitortu du Sampedrok. Horretarako baldintza, baina, bat eta bakarra da: uztailearen 8an Bastidan (Ara- ba) jokatu den Euskal Kopako

laugarren lasterketan lidergoari eustea. Korrikalari atxondarrak marka politak egin ditu orain arte jokatu diren Euskal Kopako lasterketan. "Mendaron bosgarren egin nuen, Amurrión eta Bedián hirugarren, eta Bastidako aurre samarrean amaitzea lortzen badut, lidergoari eutsiko diot matematikoki. Podiuma egin ez arren, laugarren zein bosgarren eginda lehenengo jarraituko nuke Euskal Kopan. Hori lortzen badut Comapedrosan lehiatzeko aukera izango nuke", azaldu du Sampedrok.

Atxondarrak lehenengo amaitu zuen joan zen asteburuan Europako Mendiaren jokaturiko Lasterketa Handia. "Gustura" dago emaitzagaz. "Erritmo bizian irten, aurrean ipini eta halantxik amaitu nuen lasterketa", azaldu du.

Agirrebeitiak zazpigarrenez jantzi du txapela Berrizen

Eguazten iluntzean Berrizko San Pedro eta Santa Isabel frontenis txapelketako finalak jokatu zituzten

PILOTA • J.D.
Oizpe pilota elkartek antolatzen duen frontenis txapelketak baditu aurtengo txapeldunak. Eguazte- nean hiru final jokatu zituzten Berrizko Olaburu pilotalekuan. Mutiletan eta lau t'erdia- ren barruan, Eneko Agirrebeitia berriz- tarrak 22-12 irabazi zion Aitor Bernaolari. Agirrebeitiak neurria hartuta dio etxeko txapelketari, azkenengo zortzi aldietatik zazpi irabazi ditu eta. Aurtengo 12. edizioa izan da. Nesken binakako

txapelketan, Naia Arregi eta Jone Askasibar geratu ziren txapeldun. Emozio handiko partidu estu batean, 22-21 menderatu zituzten Lorea Laskurain eta Enara Nieto.

Txapelketa mistoa
Azkenik, bikote mistoen txapel- ketan, Egoitz Amezua eta Naiara Amezua izan ziren onenak. Final lehiatu batean, 22-15 irabazi zie- ten Mikel Laskuraini eta Lorea Laskuraini. Txapelketa mistoan 12 bikotek parte hartu dute



Garazi Sampedro atxondarra (erdian), Olatz Aizpitarte elorriarra (ezkerrean) eta Nagore Uibarri (eskuman).



Eguazten iluntzean jokatuak finalak jokatu zituzten txapelketako protagonistak.

Jokaldia

Irene

Irene Sarrionandia Unzueta Zornotzako Oromiño auzoan jaio zen, Zuetzagoiti baserrian, 1948ko abenduaren 8an. Umetan Abadiñoko Mendiola auzoan asko egoten zen, Intxalde (Intxaurralde) baserrian (hangoa du familia), eta ondo ezagutzen ditu Anbotoren eta Alluitzen altzoko parajeak. Irenek 73 urte ditu, 45 urterekin hasi zen mendian korrika, eta harrezkero makina bat lasterketatan parte hartu du: Gorbeia Suzien, Anbotoko kilometro bertikalean, Zegama-Aizkorri (hamaika bider)... Azkenengoz, Izaban elkartu naiz berarekin, orain asteburu bi, Camille eXtreme lasterketan. Izabako lasterketako edizio guztietan parte hartu duen korrikalari bakarra da. Aurten, hamaseigarrenez ipini du dortsala bertako proban, eta antolatzaileek bere izena ipini diote lehenengo



Oihana Azkorbebeitia Urizar
Mendi lasterketak

Irenek 73 urte ditu, 45 urterekin hasi zen mendian korrika eta makina bat mendi lasterketatan parte hartu du

Azkenengoz, Izaban elkartu naiz berarekin. Aurten hamaseigarrenez ipini du dortsala bertako proban

emakumezkoaren sariari. Proba gogorra da Izabakoa, Ezkaurre mendia (2.047 m) igotzen da, eta 31,5 kilometrotan oso tarte teknikoak daude. Baina Irene sasoi betean dago eta proba sei orduren buel- tan amaitzeko asmoa zuela esan zidan lasterketa bezperan. Esan eta egin. Bere burua ondo ezagutzen duen seinale.

Inbidia ematen du Irenek, inbidia sana. Bere adinean mendian ko-

rrika ibiltzeak bizipoza ematen dio eta hala jarraituko duela dio, mendian gora eta behera, osasunak laguntzen dion artean. ETBko Helmu- ga programan esan zuen bizirik jarraitzeko egiten duela korrika. Uda ostean, Ubideko Ubidestroi mendi lasterketan parte hartuko du, irailaren 10ean, eta ea han ere bat egiten dugun. Irenek meritu bikoitza du, 55 urterekin minbizia gaingitu zuen eta. Harrezkero, geratu ere ez da egin, kirola barru- barruan darama eta. Korrika egitetik aparte, bizikleta zalea ere bada, eta judo ere ondo ezagutzen du (gerriko beltza du).
Kirolean, eta bizitzan orokorrean, sekula ere ez du idolorik izan, ez naiz mi- to zalea, baina Irene andra eredugarria iruditzen zait. Neuk ere ilusioa dut, bere antzera, gorputzak nahikoa esan arte mendian ibiltzeko, ahal dela korrika. Bejondeizula, Irene.

Durangaldeko azken albisteak jaso gura dituzu?

Batu Anbotoko whatsapp taldera



Bidali alta
688 635 041
telefono zenbakira

* **Izan zaitez berriemaile ere.**
Bidali zure argazki eta bideoak

> anboto

Eskelak jartzeko: 946 816 558
edo anboto@anboto.org

Eskela mota guztiak

- Anboto paperean + anboto.org-n: 100€ (Anboto txartela dutenentzat 90€)
- Paperean: 60€ (Anboto txartela dutenentzat 50€)
- Webgunean: 60€ (Anboto txartela dutenentzat 50€)

Botikak	
BARIKUA, 1 · 09:00-09:00	09:00-22:00
BALENCIAGA EZKURDI PLAZA 8 - DURANGO	SARASKETA, DIEGO LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA
SARASKETA, DIEGO LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA	ASTELEHENA, 4 · 09:00-09:00
ZAPATUA, 2 · 09:00-09:00	SARRIA SASIKOA 17, DURANGO
GAZTELUMENDI J.A. ABASOLO 2 - DURANGO	IRUARRIZAGA, KARMELE SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA
IRUARRIZAGA, KARMELE SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA	09:00-22:00
09:00-13:30	SARASKETA, DIEGO LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA
SARRIA SASIKOA 17, DURANGO	MARTITZENA, 5 · 09:00-09:00
CAMPILLO MONTEVIDEO ETORB. 24 - DURANGO	UNAMUNZAGA MURUETATORRE 2C - DURANGO
DE DIEGO INTXAURRONDO 22. - DURANGO	IRUARRIZAGA, KARMELE SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA
09:00-22:00	SARASKETA, DIEGO LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA
BAZAN DIAZ URIBARRI 5 - DURANGO	EGUAZTENA, 6 09:00-09:00
GOIRIA, MARI CARMEN SABINO ARANA 6 - ZORNOTZA	CAMPILLO MONTEVIDEO ETORB. 24 - DURANGO
MELERO, ROSA MARI SAN PEDRO 31 - ZORNOTZA	IRUARRIZAGA, KARMELE SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA
JAIO-ABENDIBAR ERREKAKALE 6. - ELORRIO	09:00-22:00
09:00-14:00	SARASKETA, DIEGO LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA
IRIGOIEN BIXENTE KAPANAGA 3 - IURRETA	EGUENA, 7 · 09:00-09:00
09:00-22:00	GAZTELUMENDI J.A. ABASOLO 2 - DURANGO
SARASKETA, DIEGO LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA	IRUARRIZAGA, KARMELE SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA
DOMEKA, 3 · 09:00-09:00	09:00-22:00
IRIGOIEN BIXENTE KAPANAGA 3 - IURRETA	SARASKETA, DIEGO LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA
IRUARRIZAGA, KARMELE SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA	

Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG · EGUAZTENeko 14:00AK ARTEKO EPEA



GOZATU GOZOTEGI-OKINDEGIA

Zorionak, **Katalin (898. alea)**! Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzeko txartela gura duzunean jaso dezakezu lurretako gure egoitzan: Bixente Kapanaga, 9an.

Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com
facebook: Gozatu Gozotegia



Zorionak, **Manex**! 14 urte egin zenituen eguaztenean eta zelako merienda goxoa prestatu zenuen ospatzeko! Abadiñoako familiaren partez musu haundi bat eta ia bisera berriarekin noiz ikusten zaitugun!



Zorionak, mendizale! Egun on-ona pasau eta ia noz inbitetan gaituzun trago batera. Mosu handi bat.



Zorionak, **Peio**! Uztailaren 4an 9 urte egingo dituzu. Jarraitu orain arte bezalako jatorra izaten. Patxo izugarri bat etxeko guztion partez



3 urte! Zorionak, **Osertz**! Zure familia guztiaren partez! Mosu handi-handi bat eta 3 belarri tirekada!

Eguraldia

ZAPATUA 🌡️ 28° / 11° ☀️

DOMEKA 🌡️ 23° / 15° 🌧️

ASTELEHENA 🌡️ 25° / 15° 🌧️

MARTITZENA 🌡️ 23° / 16° 🌧️

EGUAZTENA 🌡️ 23° / 16° 🌧️


EGUENA 🌡️ 25° / 15° ☀️

hitz

artekalea 23, durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com

liburudenda

1#



M, AMA, EME, UME
Erika Lagoma /
Estitxu Fernandez
(Elkar)

2#



MUNDUARI BIRA
EMAN ZION ONTZIA
Joseba Sarrionandia / Ares
(Pamiela)

3#



EZ ERRAN INORI
Maddi Ane Txoperena
(Elkar)

4#



DENA AMETSA DEN
IRUDIPENA
Leire Vargas
(Elkar)

5#



ERMITAK BIDE,
DURANGALDEA BIZI
Ramon Castillo /
Ibon Murua
(Alpino Tabira)

#salduenak

“Pertsonalki eta profesionalki hazteko aurkeztu naiz lehiaketara”

Ainhoa García Miss World Spain edertasun lehiaketan izan da. Ez du lehenengoen artean egotea lortu, baina esperientzia polita izan dela aitortu du; polita, baina gogorra



Ainhoa García Garcia
Miss Bizkaia
ZORNOTZA | 2001

ZORNOTZA • AITZIBER BASAURI

Ainhoa Garciak edukiak sortzen ditu edertasunagaz loturiko enpresentzat, eta estetika eta makillaje ikasketak ditu. Zornotzarra da, Galdakaon bizi da eta kirola eginda eta osasuntsu janda zaintzen du bere gorputza. Azkar ikasteko duen erraztasuna du indargune.

Lehenengoz aurkeztu zara Miss World Spain edertasun lehiaketara. Zelako esperientzia izan da?

Oso intentsoa izan da, oso zorroa, estres handikoa eta erloju kontrakoa. Izan ere, hilabete aurretik abisatu zidaten hautatu nindutela, Miss Universo Spain lehiaketako azken fasera heldu berri nintzela. Miss Universo prestatzen 5-6 hilabete egin nituen, sare sozialetatik nigaz hartu-emanetan ipini eta gero. Guztiagaz ere, dena egin ahal izan dut. Nire gorabeherak izan ditut, baina oso pozik nago egindako lanagaz eta

Moda munduan sartu berria naiz eta momentu ezin hobean sortu zait lehiaketan parte hartzeko aukera

lorturiko emaitzagaz. Gainera, asko ikasi dut, hori da niretzat ekarpenik garrantzitsuenak. Modaren munduan sartu berria naiz eta momentu ezin hobean sortu

zait lehiaketan parte hartzeko aukera, asko ikasi dudalako.

Zein helburugaz aurkeztu zinen?

Denbora bat da edertasun lehiaketak jarraitzen ditudala. Gaur egun, edertasunaz haratago doazen lehiaketak direla uste dut, beste hainbat aspektu hartzen dela kontuan. Miss World Spainen, adibidez, proiektu sozial bat aurkeztu behar da aurrera egiteko. Banuen buruan halako lehiaketa batera aurkezte, eta aukera parean ipinita aurrera egin nuen. Pertsonalki eta profesionalki hazteko helburugaz aurkeztu naiz, eta esperientzia berri bat probatzeko.

Zelan prestatu behar da miss izateko?

Hainbat ezaugarri izan behar da, eta hainbat gai landu. Jarrera ez ezik, esfortzua, ardura, sinpatia eta apaltasuna behar dira. Adiskidantza ere garrantzitsua da.

Eta edertasuna?

Egia da ezaugarri fisiko batzuk izan ezean ez dela castingetan aurrera egiten. Irudi egoki bat beharrezkoa izan daiteke, baina ez dut uste horren garrantzitsua denik.

Zelan sartu zinen modaren munduan?

Orain urte eta erdi, makillatzera joan nintzen publizitate iragarki baterako. Modeloak makillatu nituen eta ni ere modelo lez jartzeko eskatu zidaten. Hor hasi zen dena. Esperientzia gustatu zaitzaidan, eta gero lan txiki batzuk egin ditut. Orduan hasi nintzen lehiaketak jarraitzen, eta modelo izateko ikastaro bat egin nuen agentzia batean. Nire altueragaz aukera gutxiago izan dezaket lan egiteko, baina baditut beste ezaugarri batzuk.

Zein erronka dituzu etorkizunerako?

Modelo izan gura nuke, eta horri heldu diot. Pasarela probatu dut eta asko gustatu zait. Victoria Secret bat egitea ondo legoke (barrez).

Baduzu erreferenterik?

Sara Loinaz (Miss Universo 2021) asko gustatzen zait eta Romee Strijd (Victoria Secret) ere bai.

Berriro ere aurkeztuko zara?

Miss Bizkaia naiz eta hori behintzat badaukat. Miss World Spain amaitzean esan nuen: ‘Gehiagorik ez!’. Zelan funtzionatzen duten jakinda, baliteke berriro ahalegintzea. Esperientzia polita da, baina gogorra. Ez dut uste denentzako denik, baina bizi osorako markatzen zaitu.

Lauhortza

Karol Suarez
Borges
Kazetaria



Lanekoa soziala delako

Auzokideok badakigu aspertuta daudela bizitza-proiektuak suntsitzen dituen behin-behinekotasunarekin. Izoztutako antzinatasunarekin, lan istri-puekin, zaintza edo kontziliazio neurri ezekin... berdin. Gogaituta, halako beharraren pozoia pertsonaren ertz guztietan mamitzen delako bizitzak intoxikatu eta hondatu nahian.

Hirugarren lanuztea egin dute gaur Bizkaiko metalgintzako beharginek. 50.000 langiletik gora dabilta bertan lanean eta ondo dakigu eskualde honetan zein argazki uzten duen horrek; zenbat eta zenbat etxe hitzarmen beraren giltzarripoaz.

Beste behin, lurrikara baten lekuko izan da Durangaldea; bertoko beharginek argi utzi dute borrokarako prestutasuna badutela. Gainera, azken urte zoroetan berretsi da, baldintza duinak norberak eta kolektiboan borrokatu ezean, zerutik ez dela oparirik jausten. Tira, ikusiko dugu inoiz halakorik. Ziur, baina, patrioiaren eskutik ez zaigula ezer onik iritsiko.

Bada, grebak eta aliantza handiak behar dira. Ala, zuei ez zaizue oilo-ipurdia jartzen, esaterako, merkataritzako eta zahar egoitzetako langileek behargin batasunaren aldeko oihu artean industriako grebalaria txalotzen dituztenean? Niri bai. Eta, ez. Ez da kasualitatea sektore feminizatuak izatea.

Laneko arazoak gatazka sozial bihurtzea beharko genuke helburu; lanekoa soziala delako eta soziala, berriz, laborala. Oztupo guztien gainetik, segi langile enpresak hustu eta kaleak betetzen. Zeren eta borroka hitzarmen justu eta zuzen baten aldekoa da, inoiz ez pribilegio baten aldekoa.

Estetika gida

anboto



NUKLEO
ileapaindegia
946 582 996
Nizeto Urkizu, 14 behea
ELORRIO

Ile-apaindegia



IUNIK
ILEAPAINDEGIA

Antso Estegiz, 1
DURANGO
Tel.: 946 216 491